



# DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

*2016ko memoria*

# AURKIBIDEA

---

<b>1. SARRERA</b>	<b>5</b>
<b>2. JARDUERA TURISTIKOAREN BALANTZEA 2016</b>	<b>6</b>
2.1. OSTATU-GAUEN BILAKAERA	6
2.2. OKUPAZIO MAILA LOGELAKO, HILABETEA ETA ASTEKO EGUNAREN ARABERA	7
2.3. MICE EKITALDIEN BILAKAERA (MEETINGS, INCENTIVES, CONFERENCES AND EXHIBITIONS)	8
2.4. HELMUGA NAZIOARTEKOTZEA	10
2.5. DONOSTIA, LURRALDEKO TURISMORAKO HIRI ERAGILEA	11
2.6. HIRIRA HELTZEKO GARRAIOBIDEAK	11
2.7. GAUR EGUNGO TURISTAREN PROFILA ETA TIPOLOGIA	12
2.8. DONOSTIA KOMUNIKABIDEETAN ETA NAZIOARTEKO SAILKAPENEAN	14
<b>3. ANTOLAKUNTZA EGITURA</b>	<b>18</b>
3.1. ADMINISTRAZIO KONTSEILUA	18
3.2. KONTSULTARAKO KONTSEILUA	18
3.3. DONOSTIA TURISMO & CONVENTION BUREAU ERAKUNDEAREN BAZKIDEAK	19
<b>4. BALANTZE EKONOMIKOA</b>	<b>21</b>

<b>5. DONOSTIA TURISMO &amp; CONVENTION BUREAUREN JARDUERAK</b>	<b>22</b>
<b>5.1. MARKETINA ETA KOMUNIKAZIOA</b>	<b>22</b>
<b>5.1.1. HELMUGAREN KANPO- PROMOZIOA</b>	<b>22</b>
5.1.1.1. Publizitate-kanpainak	23
5.1.1.2. Webgunea eta sare sozialak	28
5.1.1.3. Press trip-ak edo prentsa eta blog-egileen bidaiak	36
<b>5.1.4. BERTAKOEI ZUZENDUTAKO KOMUNIKAZIOA</b>	<b>38</b>
<b>5.2. MICE TURISMOA</b>	<b>39</b>
<b>5.2.1. TOKIKO EKINTZAK</b>	<b>39</b>
5.2.1.1. Aurkeztutako hautagaitzak	39
5.2.1.2. Enbaxadore programa	40
<b>5.2.2. BERTAN ETA NAZIOARTEAN EGINIKO EKINTZAK</b>	<b>41</b>
5.2.2.1. Azokak eta <i>workshop</i> ak	41
5.2.2.2. <i>Fam trip-ak</i> , ikuskapen-bidaiak eta merkaturatzeari lotutako bisitak	42
5.2.2.3. Ekintza bereziak	43
5.2.2.4. Argitalpen espezifikoak	43
5.2.2.5. Pizgarri - Bidaiak	45
<b>5.3. AISIALDIKO TURISMOA</b>	<b>47</b>
<b>5.3.1. PRODUKTU TURISTIKOAK</b>	<b>48</b>
5.3.1.2. Zerbitzuen salmenta	49
5.3.1.3. Txartel turistikoak	52
<b>5.3.2. BISITARIENTZAKO ARRETA</b>	<b>53</b>
<b>5.3.3. AZOKAK ETA <i>WORKSHOP</i>AK</b>	<b>54</b>
<b>5.3.5. ARGITARATZEAK</b>	<b>56</b>
<b>5.4. TURISMOGUNEAREN KUDEAKETA</b>	<b>59</b>
<b>5.4.1. JARDUERAK SEKTOREAREKIN</b>	<b>59</b>
<b>5.4.2. KALITATEZKO ZERBITZUA</b>	<b>62</b>
<b>5.4.3. IRAUNKORTASUN TURISTIKOA</b>	<b>62</b>
<b>5.4.4. IRISGARRITASUNA (DIBERTSITATE FUNTZIONALA)</b>	<b>63</b>
<b>5.4.5. AZPIEGITURAK (MUGIKORTASUNA/IRISGARRITASUNA/SEINALEAK) HOBETZEKO JARDUERAK</b>	<b>63</b>
<b>5.4.6. TURISMOGUNEKO INKESTA BISITARIEN PROFILA ETA GOGOBETETZE MAILA EZAGUTZEKO</b>	<b>64</b>
<b>6. EUROPAKO SAREETAKO PARTE HARTZEA</b>	<b>65</b>
<b>ERANSKINA. DONOSTIA KOMUNIKABIDEETAN</b>	<b>66</b>



# 1. SARRERA

---

Donostia Turismo & Convention Bureauen 2012-2016 Gida- Planean bi ziren ardatz nagusiak helmuga turistikoaren [iraunkortasuna](#) bermatzeko: [desestazionalizazioa](#) eta [nazioartekotzea](#). Balantzaren datuek erakusten dutenez, lana bide onean doa, izan ere, denboraldiz kanpoko hazkundera nabarmena izan da, eta nazioarteko turistak estatukoak baino gehiago dira. 2013. urtetik datu horien joera goranzkoa da.

Gainera, nazioartean duen [kalitatezko helmuga](#) izaera indartu du hainbat arrazoiren eraginez: [2016ko Europako Kultur Hiriburutza](#), nazioarteko komunikabideen presentzia, web-orriko bisitak igotzea, sare sozialetako elkarrekintza, promozio-kanpainak, fam trip-ak etab. Donostia Turismo & Convention Bureauak bilerak Donostiara erakartzeko egin duen lanak ere eragina izan du helmuga nazioartean hedatzen laguntzeko eta denboraldiz kanpoko turismoa indartzeko.

Era berean, urtean zehar 2017-2021 urteetarako Gida-plan bat sortzeko lanak hasi ziren. Horretarako hainbat lan-mahai jarri ziren martxan, agente publiko eta pribatuekin, instituzioekin eta adituekin. Hiritarrak ere hausnarketaren erdigunean kokatu dira, eta beren ideiak eta iradokizunak [www.plazairekia.eus](http://www.plazairekia.eus) web-orrian eman ahal izan dituzte, Donostiako turismoaren erronkak guztion artean gainditzeko. Turismo [iraunkorra](#) eta [orekatua nahi dugu, gure baloreekiko](#) errespetua eta helmugaren [egiazkotasuna](#) mantenduko dituen.

“

*“Balantzeko datuek erakusten dute 2012-2016 Gida-Planean ezarritako helburuak bete direla”*

”

## 2. JARDUERA TURISTIKOAREN BALANTZEA 2016

### 2.1. OSTATU-GAUEN BILAKAERA

Turismoa hazi egin da batez ere goi-denboralditik kanpo, urtarrila eta martxo artean batez besteko hazkundea % 21,49 izan da, ordea, uztailean % 6 hazi da eta abuztuan % 3. Horrek frogatzen du Donostia Turismo & Convention Bureauk **urtaroen araberakoa ez den turismoa** indartzeko egin duen ahalegina.

2,03 gau da **ostatu-gau kopuruen** urteko batez bestekoa.

“

*Turismoaren hazkundea nabarmenki handiagoa da denboraldi baxuan*

”

### OSTATU-GAUAK

OSTATU-GAUEN KOPURUAREN EBOLUZIOA	2015	2016	HAZK. 15/16
Urtarrila / Enero	51.210	60.851	%18,83
Otsaila / Febrero	48.302	60.530	%25,32
Martxoa / Marzo	73.417	88.342	%20,33
Apirila / Abril	89.332	92.471	%3,51
Maiatza / Mayo	109.369	118.214	%8,09
Ekaina / Junio	118.710	123.793	%4,28
Uztaila / Julio	140.053	148.698	%6,17
Abuztua / Agosto	152.493	157.071	%3,00
Iraila / Septiembre	120.105	127.441	%6,11
Urria / Octubre	112.097	124.718	%11,26
Azaroa / Noviembre	76.267	81.678	%7,09
Abendua / Diciembre	74.134	81.739	%10,26
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.165.489</b>	<b>1.265.546</b>	<b>%8,58</b>

Iturria: EUSTAT

### HAZKUNDEA UDATIK KANPO

	URTEA	GUZTIRA	%
Sarrera kopurua (uztaila eta abuztuan izan ezik)	2010	672.006	—
	2011	679.769	1,16%
	2012	708.839	4,28%
	2013	730.831	3,10%
	2014	772.659	5,72%
	2015	872.943	12,98%
	2016	959.777	9,95%

Iturria: EUSTAT

## 2.2. OKUPAZIO MAILA LOGELAKO, HILABETEA ETA ASTEKO EGUNAREN ARABERA

Donostia City Break turismogune gisa edo asteburuetarako ihesaldietarako sustatzearen aldeko apustuak (onlineko eta offlineko kanpainak, ihesaldi kulturalak, gastronomikoak, kiroltakoak eta abar sustatzeko) ere arrakasta nabarmena izan du, lan-egunetik asteburuetako okupazioa nabarmen ugartu baita.



### OKUPAZIO-MAILA LOGELAKO

HILABETEA	GUZTIRA		LANEGUNAK		ASTEBURUA	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016
Urtarrila / Enero	↓ 40,5	↑ 47,0	↓	↑ 39,6	↓ 49,7	↑ 62,5
Otsaila / Febrero	↓ 46,0	↑ 51,0	↓ 39,3	↑ 42,2	↓ 62,8	↑ 74,1
Martxoa / Marzo	↓ 55,3	↑ 61,0	↓ 48,5	↑ 55,7	↓ 74,7	↑ 76,3
Apirila / Abril	↓ 65,8	↑ 73,9	↑ 60,5	↓ 59,9	↓ 80,6	↑ 81,1
Maiatza / Mayo	↓ 76,8	↑ 83,0	↓ 70,3	↑ 80,1	↓ 90,5	↑ 91,2
Ekaina / Junio	↓ 85,1	↑ 86,1	↓ 83,1	↑ 83,8	↓ 90,4	↑ 92,5
Uztaila / Julio	↓ 90,2	↑ 91,3	↓ 89,5	↑ 90,0	↓ 91,9	↑ 94,0
Abuztua / Agosto	↑ 93,5	↓ 92,6	↑ 92,7	↓ 91,6	↓ 95,3	↑ 95,5
Iraila / Septiembre	↓ 87,5	↑ 89,4	↓ 85,3	↑ 87,6	↑ 93,5	↓ 93,5
Urria / Octubre	↓ 79,5	↑ 84,8	↓ 74,9	↑ 81,3	↓ 89,3	↑ 93,4
Azaroa / Noviembre	↓ 59,4	↑ 62,8	51,9	↑ 56,9	↑ 80,0	↓ 79,1
Abendua / Diciembre	↓ 53,8	↑ 56,5	↓ 52,1	↑ 52,6	↓ 58,6	↑ 64,8

Iturria: EUSTAT

### 2.3. MICE EKITALDIEN BILAKAERA (MEETINGS, INCENTIVES, CONFERENCES AND EXHIBITIONS)

Donostian bilera- turismoa **haziz doa urtetik urtera**, eta gero eta **nazioartekoagoa** da. 2016an kongresuen % 46,25 nazioartekoak izan dira. Gainera, turismo mota horrek urtaroen arabekoa ez den turismoa indartzen du, kongresu gehienak **behe-denboraldian** egiten direlako.

2016ean, bileren turismoarekin erlazionaturako 147 ekitaldi antolatu dira (kongresuak, konbentzioak, jardunaldiak...), aurreko urtean baino % 12 gehiago. 2016ean, kongresuetako eta bileretako parte-hartzaileen kopurua 38.131etik 42.209ra igo da, gaua pasatzen duten pertsonen kopuruak ere gora egin du 102.377tik 110.574ra (% + 8).

### BILERA-TURISMOA

ADIERAZLEA	GUZTIRA		HAZK: 2015/16
	2015	2016	
Parte-hartzaile kopurua	38.131	42.209	%10,69
Gau kopurua	102.377	110.574	%8,01
Ekitaldi kopurua (Kongresuak, Jardunaldiak, Konbentzioak)	131	147	%12,21
Pizgarrietan parte-hartzaile kopurua	2820	3813	%35,21
Ostatu-gauak pizgarrietan	4978	6654	%33,67

Iturria: Donostia Turismo & Convention Bureau

Interesgarria da Euskadiko kongresuetara etortzen diren pertsonen egindako balorazioa. Ibilturrek emandako datuen arabera **Donostiak lortu du satisfazio-mailarik handiena: 5 puntutatik 4,9;** ondoren Bilbok (4,8); eta, azkenik, Gasteizek (4,2).

Kongresu horietako asko turismoaren goi-denboralditik kanpo egin dira. Kongresu guztien % 85 urtarriletik maiatzera eta urritik azarora egiten dira.

Gainera, 2016an pizgarri-bidaien ondorioz 3813 ostatu-gau sortu dira, aurreko urtean baino % 35 gehiago. Pizgarri-bidaiak garrantzitsuak dira, kongresuek baino eragin handiagoa dutelako ekonomian eta gastuaren zati handi bat hirian geratzen delako.

“  
*Donostia Estatuan nazioarteko kongresu gehien erakartzen dituen 2.hiria da, ICCAn erregistratutako kongresuak kontuan hartuta*  
 ”





### **Donostia International Congress and Conventions Association sailkapenean (ICCA)**

**International Congress and Conventions Association sailkapenean (ICCA) puntuatzeko** baldintza hauek bete behar ditu kongresu batek:

- a) Gutxienez 3 herrialde ukitu dituen errotazioa egiaztatzea.
- b) Gutxienez 50 parte-hartzaile erakartzea.
- c) Maiztasun jakin batekin ospatzea (ez dira ad hoc ekitaldiak onartzen).


Hau da Donostiak ICCA 2015 sailkapenean duen posizionamendua, estatu eta mundu mailan:

- Biztanleko kongresu gehien erakartzen dituen Espainiako 2. hiria (Bartzelona ostean).
- 148 postua mundu mailan, 17 nazioarteko ekitaldirekin. Maila berean daude adibidez Los Angeles, Belfast, Johannesburgo, Malmö, New Orleans, Las Vegas edo Estrasburgo.

## 2.4. HELMUGA NAZIOARTEKOTZEA

Donostiako turismoa nazioartekotzea, Sozietatearen Gida-Planean ezarritako helburuetako bat dena, hazten ari da garatu diren sustapen-ekintzei esker. 2013tik, joera alderantzikatu da eta nazioartekoen ostatu-gauen ehunekoak handiagoa dira estatu mailakoak baino. Joera hori urtetik urtera igo egiten da, eta hala **% 54,7 izan dira atzerritik datozen ostatu-gauak, eta % 47,80 berriz, estatukoak.**

### ESTATUKO / ATZERRIKO OSTATU-GAUAK



	2010	%	2011	%	2012	%	2013	%	2014	%	2015	%	2016	%
<b>Estatukoak</b>	565.751	62,16%	531.748	57,97%	505.868	52,71%	484.717	48,90%	504.730	48,60%	557.060	47,80%	573.337	45,30%
<b>Atzerritarrak</b>	344.466	37,84%	385.514	42,03%	453.876	47,29%	506.518	51,10%	533.733	51,40%	608.429	52,20%	692.209	54,70%
<b>GUZTIRA</b>	<b>910.217</b>		<b>917.262</b>		<b>959.744</b>		<b>991.235</b>		<b>1.038.463</b>		<b>1.165.489</b>		<b>1.265.546</b>	

Iturria: EUSTAT

ESTATUKO SAILKAPENA 2016	2016	%
Madril	120.066	20,94%
Katalunia	108.585	18,94%
Andaluzia	44.378	7,74%
Gaztela eta Leon	38.212	6,66%
Valentziako Erkidegoa	31.472	5,49%
	<b>573.337</b>	

Iturria: EUSTAT

2016an gehien hazi den merkatua Alemania izan da (% +50,43), eta ostean Frantzia eta Australia. Estatu Batuak eta Erresuma Batua ere gehien hazi diren herrialdeen top5-ean daude. Nazioarteko bisitarien % 42,3 herrialdeetatik datoz: Frantzia (% 17,35), Estatu Batuak (% 12,97) eta Erresuma Batua (% 11,39)...

NAZIOARTEKO SAILKAPENA 2016	2015	2016	%	HAZK. 15/16
Frantzia	99.923	120.066	17,35%	20,16%
Estatu Batuak	87.346	89.813	12,97%	2,82%
Erresuma Batua	75.318	78.831	11,39%	4,66%
Alemania	35.678	53.672	7,75%	50,43%
Australia	33.739	38.212	5,52%	13,26%
<b>NAZIOARTEKOEN OSTATU-GAUAK GUZTIRA</b>	<b>608.429</b>	<b>692.209</b>		<b>13,77%</b>

Iturria: EUSTAT

## 2.5. DONOSTIA, LURRALDEKO TURISMORAKO HIRI ERAGILEA

Donostia hiri eragile gisa sendotu da Gipuzkoara turismoa (batez ere nazioartekoa) erakartzeko garaian. Gipuzkoako turisten % 58k Donostia bisitatzan dute eta % 42k beste herrialdeak. Nazioarteko turismoari dagokionez, Gipuzkoara datozen nazioarteko turisten % 72k Donostia bisitatzan dute, eta % 28k Gipuzkoako beste herrialdeak. Nazioarteko turismoak igoera nabarmena izan du Donostian (% 14) eta Gipuzkoako beste herrialdeetan (% 13).

		2015	2016	HAZK.%
OSTATU-GAUAK DONOSTIAN	Estatua	559.220	573.337	3%
	Nazioartekoa	608.429	692.209	14%
OSTATU-GAUAK GIPUZKOAKO BESTE HERRIALDEETAN	Estatua	585.190	642.934	10%
	Nazioartekoa	239.558	271.397	13%

Iturria: EUSTAT

		2016	%
TURISTEN OSTATU-GAUAK GIPUZKOAN	Donostia/ San Sebastián	1.265.546	58,06%
	Gipuzkoako beste herrialdeak	914.331	41,94%
	<b>GUZTIRA</b>	<b>2.179.877</b>	
TURISTA ATZERRITARREN OSTATU-GAUAK GIPUZKOAN	Donostia/ San Sebastián	692.209	71,84%
	Gipuzkoako beste herrialdeak	271.397	28,16%
	<b>GUZTIRA</b>	<b>963.606</b>	

Iturria: EUSTAT

## 2.6. HIRIRA HELTZEKO GARRAIOBIDEAK

Taula honetan bildu dira, Donostiako turismo bulegotik pasatu diren bisitarien hirira heltzeko erabili dituzten garraio bideak. Gehienak autoz heltzen dira Donostiara, nahiz eta gero eta bisitari gehiago datozen autobusez, trenez edo hegazkinez (Bilbo eta Donostiako aireportuen kasuan). Horiei gehitu behar zaizkie, naiz eta ehuneko baxuagoa izan, hirira oinez iristen diren bisitariak, Donejakue bidearen eraginez.

### ERABILITAKO GARRAIOBIDEA



BISITARIAK GUZTIRA	GUZTIRA 2015	%	GUZTIRA 2016	%	DES. 2015-2016
Autoz	83.151	55,92	123.620	55,29	-1,12%
Autobusez	17.943	12,07	34.834	15,58	29,12%
Trenez	10.254	6,90	16.051	7,18	4,11%
Hegazkinez Biarritzetik	1.743	1,17	2.413	1,08	-7,92%
Hegazkinez Bilbotik	6.898	4,64	12.054	5,39	16,23%
Hegazkinez Donostiatik	5.073	3,41	8.449	3,78	10,77%
Autokarabanaz	5.474	3,68	7.099	3,18	-13,74%
Oinez	13.733	9,24	13.133	5,87	-36,39%
Beste	4.432	2,98	5.917	0,14	-95,29%
<b>GUZTIRA</b>	<b>148.701</b>		<b>223.570</b>		


Iturria: Donostia Turismo & Convention Bureau

## 2.7. GAUR EGUNGO TURISTAREN PROFILA ETA TIPOLOGIA

Datakey erakundearen ikerketaren arabera, hauek dira turistek eta txangolariak Donostia bisitatzeko arrazoi nagusiak:

### BISITAREN ARRAZOI NAGUSIA







## 2.8. DONOSTIA KOMUNIKABIDEETAN ETA NAZIOARTEKO SAILKAPENEAN

Donostia Turismo & Convention Bureau erakundeak antolatu dituen prentsa-bidaia ugarien ondorioz, [233 erreportaje argitaratu dira nazioarteko komunikabide entzutetsuetan](#). Urtarrilean, 2016ko Europako kultur-hiriburutzarekin batera 53 artikulua publikatu ziren mundu osoan, baina gainera, urte osoan zehar argitaratu diren erreportajeetan nabarmendu

dira hiriko bizi kalitatea, kultura, gastronomia, egiazkotasuna eta tradizioa, festibalak, kirol-aukerak, etab. Hauek dira Donostiari buruz argitaratu duten komunikabideetako batzuk: The New York Times, BBC, The Guardian, Forbes, The Evening Standard, The Independent, The Telegraph, Healthy Aging, The Irish Times, ELLE, Marie Claire, Le Parisien, Paris Match, Le Figaro, National Geographic, etab.

### ARGITARATUTAKO ARTIKULUAK



\*Online komunikabideetan edo nazioarteko audientzia duten blogetan argitaratutakoak

## DONOSTIA NAZIOARTEKO KOMUNIKABIDE ENTZUTETSUENETAN



### THE NEW YORK TIMES

- [36 hours in San Sebastián, Spain](#)
- [92 places to go in 2016](#)
- [Chef's camaraderie lifts Basque Cuisine](#)
- [Favorite Streets in Europe](#)



### FORBES

- [Forbes - San Sebastián: European Capital Of Culture Today, Capital Of Food Forever](#)
- [Forbes - San Sebastián: European Capital Of Culture And Much More](#)
- [Forbes - The Best Places to Visit in San Sebastián, Spain for 2016](#)



### THE TELEGRAPH

- [San Sebastián: A new beat in Basque Country](#)
- [Is San Sebastian the world's greatest city for foodies?](#)



### THE INDEPENDENT

- [Take a bite of the Basque Country](#)
- [San Sebastián: a buy window on a Basque beauty](#)



### THE GUARDIAN

- [The Guardian - 10 of the best restaurants and bars in San Sebastián - chosen by the experts](#)
- [San Sebastián: in the limelight](#)



### FRANCE 2

- [Capitain de la culture 2016, Saint-Sébastien vs célébrer la paix dans l'art](#)



### DAILY MAIL

- [How to spend an ultimate foodie weekend in San Sebastian](#)



### LE MONDE

- [Saint-Sébastien, balcon sur l'Atlantique](#)



### NATIONAL GEOGRAPHIC TRAVELLER

- [48 uur in San Sebastian](#)
- [De verleidelijke charme van San Sebastian](#)



THE IRISH TIMES

→ [San Sebastián: Basque in the culture](#)



INDUSTRY MAGAZINE

→ [kingdom of culture](#)



LE PARISIEN MAGAZINE

→ [Le Parisien Magazine: Belle est San Sebastian](#)



LE FIGARO

→ [San Sebastián, un art de fête](#)



FINANTIAL TIMES

→ [Past pain, future shock](#)



THE SCOTTSMAN NEWSPAPER

→ [Basque in the glory of Donostia and Bilbao](#)

Ikus Eranskina: Donostia komunikabideetan (komunikabideen zerrenda eta lotura)



## Donostia bidaia-giden eta bidaiarien sailkapenen topean

Gainera, nazioarteko zenbait bidaia-gidek Donostia 2016ean bisitatzeko hiri gisa nabarmendu dute eta hainbat bidaiarien sailkapenetako topean agertu da, horietako batzuk dira hauek: European Best Destinations, Skyscanner, Tripadvisor, Fodor, Condé Nast Traveler, Lonely Planet, etab.

EUROPEAN BEST DESTINATIONS



*La playa de la concha una de las mejores playas de Europa 2016*

EUROPEAN BEST CITIES



*San Sebastián, uno de los destinos más Románticos de Europa, por votación de más de 10.000 usuarios*

IO DONNA



*San Sebastián, la nº1 en el Top 10 best in Travel*

LEGER HOLIDAYS



*El Heineken Jazzaldia entre los mejores festivales de jazz de Europa*

TRIPADVISOR- NIUMBA



*La Plaza de la Constitución de San Sebastián entre las 20 con más encanto de España*

SKYSCANNER ITALIA



*San Sebastián entre las 18 ciudades a visitar en 2016.*

HUFFINGTONPOST



*Playa de la Concha en San Sebastián entre las 10 mejores playas de España*

FODOR




*San Sebastián entre las 25 ciudades a visitar en 2016*

CONDE NAST TRAVELER



*San Sebastián portada entre las 22 ciudades que van a triunfar en 2016*

THE TELEGRAPH



*San Sebastián ¿Mejor ciudad del mundo para gourmets?*

NEW YORK TIMES



*San Sebastián nº18 entre las 52 ciudades a visitar en 2016*

BUZZFEED



*San Sebastián entre las 18 ciudades que deberías visitar en 2016*

<http://www.sansebastianturismo.info/es/estamos-en/san-sebastian-en-rankings>

## 3. ANTOLAKUNTZA EGITURA

“Donostia Turismo & Convention Bureau SA” sozietatea 2006ko urtarrilaren 31ko osoko bilkuran Estatutuak onartu ostean sortu zen. Donostiako Udaleko merkataritza-izaera duen sozietatea da eta osorik Udalaren jabetza duen sozietate anonimoa da.

Donostiaren lurralde-esparruan turismoaren garapena zuzenean edo zeharka bultzatzen laguntzen duten jarduera ekonomikoak eta sozialak sustatzea eta garatzea du helburu.

### 3.1. ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

Administrazio Kontseilua da sozietatearen etengabeko kudeaketarako eta gobernurako organoa.

- Eneko Goia Jauna  
**Lehendakaria**
- Hutsune Mendiburu Anderea  
**Lehendakari orde**
- Ernesto Gasco Jauna
- Juan Ramón Viles Jauna
- Begoña Palos Anderea
- Josu Mirena Ruiz Jauna
- Miren Albistur Anderea
- Loïc Alejandro Jauna
- Fran González Jauna
- Mikel Ubarretxena Jauna
- Odón Elorza Jauna
- Iñaki Urkaregi Jauna

### 3.2. KONTSULTARAKO KONTSEILUA


Sozietatearen Administrazio Kontseiluaren aholku-organoa da.

#### ORDEZKATZEN DIREN SEKTOREAK ETA KIDEAK:

- Iker Goikoetxea Jauna  
**Azpiegiturak**
- Laura Larrión Anderea  
**Harrera Zerbitzuetarako Agentziak, eta Bidaia Agentziak**
- Guillermo García Jauna  
**Saltokiak**  
**2016ko azarorik aurrera**  
Eugenio Tamayo
- Hutsune Mendiburu Anderea  
**Kongresu, Bilera eta pizgarrien antolatzailea**
- Odon Elorza Jauna  
**Museoak, kulturako eta aisiko baliabideak**
- Fran Gonzalez Jauna  
**Ostatuak**
- Iñaki Urkaregi Jauna  
**Garraioak**
- Mikel Ubarretxena Jauna  
**Ostalaritza**
- Andoni Zubillaga Jauna  
**Zerbitzu Osagarriak**
- Maria Jesús González Anderea  
**Zerbitzu Turistikoak**

### 3.3. DONOSTIA TURISMO & CONVENTION BUREAU ERAKUNDEAREN BAZKIDEAK

Urtero handitzen da Donostia Turismoa & Convention Bureau erakundearen kideak diren establezimenduen kopurua. Gaur egun 323 kide dira, aurreko urtean baino % 13 gehiago.



### SEKTOREAK

Enpresa kideak 10 sektoretan sailkatzen dira:

Ostalaritza	%25
Ostatua	%22
Saltokiak	%20
Zerbitzu turistikoa	%8
Museoak, kulturako eta aisialdiko baliabideak	%7
Zerbitzu osagarriak eta komunikazio-zerbitzuak	%7
Bidaia-agentziak eta Harrera zerbitzuetako agentziak	%3
Azpiegiturak	%3
Garraioa	%3
Kongresu, bilera eta pizgarrien antolatzaileak	%2

### BAZKIDEEN GOGOBETETASUN INKESTA



## MUSEOAK, KULTURAKO ETA AISIKO BALIABIDEAK - 24

### MUSEOAK

- ALBAOLA
- DONOSTIAKO AQUARIUMA
- CRISTOBAL BALENCIAGA MUSEOA
- EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
- SAN TELMO MUSEOA

### KULTURA ETA AISIA

- FNAC DONOSTIA

### TALASOTERAPIA

- LA PERLA TALASO-SPORT ZENTROA

### JOLAS PARKEA

- IGELDO MENDIA

### GARRAIO TURISTIKOA

- CIUDAD SAN SEBASTIÁN KATAMARANA
- MOTORASDELAISLA.COM

### KASINOA

- KURSAAL KASINOA

### ASIA ETA KIROLA

- GALARRETA FRONTOIA
- HEGALAK
- HIPODROMOA
- JAI ALAI EVENTS
- JAI ALIVE
- PUKAS SURF ESKOLA

### AISIALDIKO ZENTROA

- EKO GUNEA HAUR PARKEA

### TXAKOLIN UPATEGIAK

- REZABAL TXAKOLINDEGIA
- TALAI BERRI TXAKOLINDEGIA

### ESCAPE ROOM

- IZURUN ESCAPE ROOM SAN

### MUSIKA-PROPOSAMENAK

- INTERMEZZO GESTMUSIC
- DONOSTIAKO ORFEOIA
- SOTTO VOCE [Ostalaritza - 78](#)

## HOSTELERÍA - 78

### MICHELIN IZARRA DUTE JATETXEAK

- AKELARRE JATETXEA
- ARZAK JATETXEA
- MARTIN JATETXEA
- MUGARITZ JATETXEA

### DONOSTIAKO JATETXEAK

- JUANITO KOJUA JATETXEA
- ASADOR MESÓN JATETXEA
- PORTUETXE ERRETEGIA
- ASTELENA JATETXEA
- BARBAKANA JATETXEA
- BARKAIZTEGI JATETXEA
- BERNARDO ETXEA JATETXEA
- BODEGON JATETXEA
- BOKADO MIKEL JATETXEA
- BRANKA JATETXEA
- CASA GANDARIAS JATETXEA
- CHIN CHIN JATETXEA
- ILLARRA JATETXEA
- LA BOULE JATETXEA (KASINOA)
- LA CEPA JATETXEA
- LA FABRICA JATETXEA
- LA MURALLA JATETXEA
- LA PERLA JATETXEA
- LANZIEGO JATETXEA
- MESON MARTIN JATETXEA
- NARRU JATETXEA
- NI NEU JATETXEA
- OQUENDO JATETXEA
- REKONDO JATETXEA
- TENIS ONDARRETA JATETXEA
- TXINPARTA JATETXEA
- TXOKO JATETXEA
- TXULETA JATETXEA
- UBARRECHENA JATETXEA
- VIA FORA JATETXEA
- ZUMELTZEGI JATETXEA

### TABERNAK ETA KAFETEGIAK

- A FUEGO NEGRO
- ANTONIO TABERNA
- AVENIDA XXI KAFETEGIA
- BARTOLO TABERNA
- HAIZEA TABERNA
- ITURRIOZ TABERNA
- ROJO Y NEGRO TABERNA
- TXALUPA TABERNA
- ZUMELTZEGI TABERNA
- KURSAAL KAFETEGIA

- VICTORIA KAFETEGIA
- IOMBI KAFETEGIA
- CASA GANDARIAS
- CASA VERGARA
- DAKARA BI
- LA VIÑA TABERNA
- SM CAFE BAR

### SAGARDOTEGIAK

- ARAETA SAGARDOTEGIA
- BEHARRI SAGARDOTEGIA
- GURUTZETA SAGARDOTEGIA
- INTXAURRONGO SAGARDOTEGIA
- IRETZA SAGARDOTEGIA
- SAIZAR SAGARDOTEGIA

### CATERING

- AZERI JANA CATERING
- BOKADO CATERING
- DIVINUS CATERING

### NAZIOARTEKO SUKALDARITZA

- LA PIAZZETTA JATETXEA
- RAVIOLINA JATETXEA
- TSI TAO JATETXEA

### JATETXE BEGETARIANOA

- TEDONE JATETXEA

### DONOSTIA INGURUKO JATETXEAK

- BEKO ERROTA JATETXEA
- CASA MIRONES JATETXEA
- GURUTZE BERRI JATETXEA
- MARINA BERRI JATETXEA
- ZIABOGA JATETXEA

### KOPAK

- DIONI'S BAR
- PUB MUSEO DEL WHISKY

### DISKOTEKAK ETA IKUSIZUNAK

- BATAPLAN DISKOTEKA
- GU DISKOTEKA

### ELKARTEAK

- GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA
- SAGARDOAREN LURRALDEA

## 4. BALANTZE EKONOMIKOA

### 2016KO LABURPENA

<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>3.576.918 €</b>
Diputazioa	50.000 €
Eusko Jaurlaritza	228.130 €
Diru-sarrera propioak	643.431 €
Zuzkidurak	62.383 €
Bazkideen diru-sarrerak	195.520 €
Udala	2.397.454 €
<b>GUZTIARA</b>	<b>1.117.083 €</b>
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>3.576.918 €</b>



## 5. DONOSTIA TURISMO & CONVENTION BUREAUREN JARDUERAK

### 5.1. MARKETINA ETA KOMUNIKAZIOA

#### 5.1.1. HELMUGAREN KANPO- PROMOZIOA

Donostia **kanpoan promozionatzeko estrategiaren** helburua da hiria **kalitatezko helmuga** gisa **posizionatzea** nazioarte-mailan, eta Donostia Turismo & Convention Bureauren Gida-planak markatutako hiru ardatz nagusiak indartzea: **urtaroen arabera ez den turismoa** —denboralditik kanpo bisitariak erakartzea—, **deskonzentrazioa** —turismo-fluxua hiriko auzo guztietan eta lurralde osoan banatzea—, eta **nazioartekotze** handiagoa lortzea.

Azkeneko ardatz horren barruan, nazioartekotzean, Frantzia, Alemania, Erresuma Batua, Europako Iparraldeko herrialdeak, Holanda, Belgika, AEB, Kanada, Japonia eta Australia definitu dira **lehentasuneko merkatu** gisa.

**Aisiako turismoaren** esparruan, hiriaren promozioa eta merkaturatzea **Citybreak hiri-helmugako posizionamenduan** oinarritzen da, ihesaldiak eta 2 eta 4 egun arteko egonaldi laburrak, arreta berezia jarritz **lau ardatz** hauei: **kultura, gastronomia, kirola eta erromantikoa/premiuma**. Horretarako, Donostia Turismo & Convention Bureauk **harreman handiak** garatu ditu azkeneko urteotan hiriko **enpresa bazkideekin**, enpresekin eta erakundeekin, eta gaiaren arabera multzokatutako 25 ihesaldi baino gehiago prestatu ditu, urte osoan zehar hurbileko merkatuetan helmuga promozionatzeko.



**Bilera-turismoaren** esparruan, **MICE turismorako** (Meetings, Incentives, Conferences, Exhibitions) eta **pizgarri-bidaietarako helmuga ideal** gisa promozionatzen da, batzarrak egiteko hiriak dituen ezaugarriak eta aukerei balioa emanda, bai eta Donostia Turismo & Convention Bureauk dituen esperientziari eta profesionaltasunari, eta 300 establezimendu bazkide baino gehiago izateari ere.


Horretarako, ekintza bakoitzean **segmentutan banatutako xede-talde** bati egokitutako **online eta offline komunikazioko** tresna batzuk erabiliko dira:

“  
*Donostia kanpoan promozionatzeko strategiaren helburua da hiria kalitatezko helmuga gisa posizionatzea nazioarte-mailan*  
 ”



## 5.1.1.1. PUBLIZITATE-KANPAINAK

**Aisialdiko turistei zuzendutako publizitate-kanpainak**

lhesaldien promozioan oinarritzen dira publizitate-kanpainak, eta produktu, bezero eta merkatu motaren arabera segmentatzen dira urte osoan zehar.

**ONLINE INBERTSIOA - 2016 IHESALDIK****Lehentasuneko merkatuak**

Hauk dira online bitartekoetan sustapen aktiboek egiten diren lehentasuneko merkatuak: Espainia, Frantzia, Erresuma Batua eta Alemania; horiek dira hiriko bisitarien % 70ek egiten dituzten hurbileko merkatu garrantzitsuenak.

**ONLINE PUBLIZITATEAN INBERTSIOA****ONLINE INBERTSIOA HERRIALDEKA**

2016an, nazioarteko publizitate-inbertsioa, Estatuarena baino handiagoa da.

**2016. urtean, 15 publizitate-kanpaina baino gehiago egin da; horietako asko nazioartekoak izan dira, herrialde horietako bitan, hirutan edo lautan.**

Horretarako, 2016ko lhesaldiak erabili dira eta, Alemanian eta Erresuma Batuan batez ere, **Donostia Kulturaren Europako 2016ko Hiriburua**ren irudiarekin egin dira kanpainak.

**Kreatibitate Nagusiak:**



Kanpaina Gastronomikoa (urtarrila-apirila / urria-abendua)



Sagardotegi Kanpaina (otsaila-apirila)

Futbol Kanpaina (apirila-azaroa)



Running Kanpaina (iraila, azaroa)

Zinemaldiko Kanpaina (abuztua-iraila)

San Valentín Kanpaina (urtarrila-otsaila)



Erabili diren kanal nagusiak dira **Google Adwords, Sare Sozialak –Facebook, Twitter eta Instagram– eta Publizitate programatikoa Erresuma Baturako eta Alemaniarako. ( RTB)**

Helburua da turista potentziala hiriaren webgunera erakartzea; informazio erabilgarri eta plan ugari aurkituko du webgune horretan turistak, eta bazkideekin harremanetan jar daiteke webgunearen bitartez.

Publizitate-inbertsioak egin diren merkatuak eta **webgunearen erabiltzaile kopurua eta turista kopurua gehien handitu** dutenak bat datoz.

Webgunearen erabiltzaileak: **Espainia, +% 31; Frantzia, +% 31, Erresuma Batua, +% 27; Alemania, +% 85\***

\*Merkatu honetan denboran iraun duen publizitate-kanpaina garrantzitsua egin den lehenengo urtea da.


lhesaldi moten arabera multzokatuta, Espainian eta Frantzian egiten da kanpaina kopururik handiena.

### Ekintzen eta publizitate-inbertsioen urtarokotasuna

**Hilabeteak** kontuan hartuta, **urtarriletik apirilera** bitarteko hilabeteetan egin ziren gehienbat inbertsioak, Donostia kulturaren hiriburu zen urtean eragina izateko, eta azaroan eta abenduan berriro handitu zen inbertsioa, neguko hilabeteak indartzeko.

**Asteburuetakoko okupazio-maila ez zen % 62tik jaitsi 2016. urtean zehar.**

### KANPAINAK URTAROEN ARABERA



## 2016ko berritasunak

Kanpaina BERRI gisa nabarmentzekoak dira 2016ko Kanpaina grafikoa eta Eguberrietako kanpaina ere; azken horretan, Eguberrietako erosketetarako eta ospakizunetarako hiri gisa aurkezten zen Donostia.

Bi kanpaina berri abenduan: “**Murgildu gure Gabonetan**” eta “**Gabon zaharreko lhesaldia**”.



Europako Kultura Hiriburua 2016 (urtarrila-apirila / urria-abendua)




## 5.1.1.2. WEBGUNEA ETA SARE SOZIALAK

Webguneak eta sare sozialak hiriaren, bere erakargarritasunen, ekitaldien... erakusleioa dira, eta bisitariekin zein herritarrekin berehala harremanetan jartzeko modua dira. Horregatik, lan handia egin da etengabe eduki berriak, erakargarriak eta erabilgarriak sortzeko, erabiltzaileei entzuteko eta haiekiko hartu-emana sustatzeko, kalitatezko argazkiak (360 °ko panoramikoak barne) eta bideoak eguneratzeko, etab.

*Lan handia egiten da etengabe eduki berriak, erakargarriak eta erabilgarriak sortzeko eta erabiltzaileekiko hartu-emana sustatzeko*

## Aisialdiko bisitariari zuzendutako webgunea


2.262.514 bisita jaso ditu webguneak 2016an, iaz baino % 33 gehiago. 6.404.591 orri ikusi ditu 1.689.144 erabiltzailek.









Nazioarteko bisitak % 48 izan ziren, nahiz eta benetako zifra handiagoa den, kontsulta asko Donostiako IPetatik egiten diren turistenak baitira; turista horiek dagoeneko hirian daudenean sartzen dira webgunera, informazioa in situ kontsultatzeko. Horren adibide argia da Donostiako IPetatik egindako kontsulten % 42 ingelesez edo frantsesez egindakoak izatea.

## NONDIK BISITATZEN GAITUZTE (ORDAINDUTAKO TRAFIKORIK GABE)

Ez dago aldaketa handirik azken 3 urtetan, 2016an bisiten %52a Estatututik egin dira.



2016an herrialde aktiboena:

1.  Espainia	1.178.377 (%52,08)
2.  Frantzia	526.618 (%23,28)
3.  Erresuma Batua	152.334 (%6,73)
4.  EEBB	83.296 (%3,68)
5.  Alemania	42.340 (%1,87)
6.  Australia	24.918 (%1,10)

Herraldeka bisiten igoera:

- %31 Espainia
- %31 Frantzia
- %27 Erresuma Batua
- %46 EEBB\*
- %85 Alemania\*
- %23 Australia

\* Estatu batuarren eta alemaniarren bisitak batez bestearren gainetik igotzen dirá (%33)

## Kontsulta kopuru handiagoa gailu mugikorretatik eta tabletetatik


Kontsulta gehiago (% 53,8) egiten da mugikorretatik eta tabletetatik, ordenagailutik baino (% 46,2).

## Bisitak, hizkuntzaren arabera

Hizkuntzetan ez dago aldaketa handirik trafikoaren banaketari dagokionez:

**%50,28** Gaztelania **%25,35** Frantsesa **%23,92** Ingelesa **%0,45** Euskara

Evoluzioa azken urteetan:



**103.223**

YOUTUBEKO BIDEO  
IKUSKATU DIRA  
WEBGUNEAN

**815.222**

KANPOKO BESTE  
WEBGUNEETARA  
KLIK EGIN DIRA

**319.245**

DOKUMENTU  
DESKARGATU DIRA

Turismoko webgunetik **Ostatu eta Jatetxeetara** (Bazkideak) trafikoa eramaten da:

- **174.472** bisita beraien **webguneetara**
- **101.837** klik **ostatu**etako **erreserbetara**
- **93.874** klik **lokalizazio-mapetan**
- **6.110** **kontaktu email** bidez
- **3.918** **kontaktu telefono** bidez

**Kanpoko** beste webguneetara **815.222** klik egin dira (bazkideak barne).

- 1. **38.854** [www.dss2016.eu](http://www.dss2016.eu)
- 2. **31.992** [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus)
- 3. **19.854** [www.donostiakultura.eus](http://www.donostiakultura.eus)
- 4. **10.945** [www.sansebastianholidays.com](http://www.sansebastianholidays.com)
- 5. **10.569** [www.monteigueldo.es](http://www.monteigueldo.es)

Youtubeko **103.223 bideo** ikuskatu dira webgunean:

1. **45.038** Escapada a Donostia // San Sebastián Short Breaks
2. **17.028** Tamborrada: The Beat of a Basque Drum
3. **6.890** Donostia / San Sebastián 2016
4. **5.092** Donostia San Sebastián Mice City
5. **2.743** DSS SHORT BREAK#2






**319.245 dokumentu deskargatu dira:**

1. **33.091** plano-ciudad-donostia-san-sebastian.pdf
2. **32.364** san-sebastian-tourist-map.pdf
3. **20.686** agenda-cultural-san-sebastian.pdf
4. **14.115** guia-vacaciones-san-sebastian.pdf
5. **13.392** agenda\_semanal.pdf


### Bilera-turismoari zuzendutako web-atala

Bilera-turismoaren webguneak 23.785 bisita izan ditu 2016an. Bisita kopurua % 10 jaitsi den arren iaztik —2015ean online marketin-kanpaina handia egin zelako—, **trafiko organikoa % 23 hazi da** 2016an; 57.945 orri ikusi ditu 19.514 erabiltzailek.

2016an herrialderik aktiboena:

1.	 <b>Espainia</b>	16.715 (%70,28)
2.	 <b>Frantzia</b>	2.859 (%12,02)
3.	 <b>Erresuma Batua</b>	624 (%2,62)
4.	 <b>EEBB</b>	622 (%2,62)
5.	 <b>Alemania</b>	373 (%1,57)
6.	 <b>Herbehereak</b>	247 (%1,04)

### HERRIALDEKOA BISITEN IGOERA



Donostia San Sebastián MICE City

KONGRESUAK HAUTAGAITZAK PIZGARRIAK PLANIFIKATZAILEA

**DONOSTIA SAN SEBASTIÁN**

10 ARRAZOI ZURE JARDUERA DONOSTIAN ANTOLATZEKO

INGURU PAREGABEA



Donostia San Sebastián MICE City

**DONOSTIA SAN SEBASTIÁN**

KONGRESU BAT EKARRI NAHI DUZU?  
Gek lagunduko dizugu!

Web profesionala izanik, ordenagailu bidezko trafikoa handiagoa da:

01-urt-2016-31-abe-2016



Turismoko webgunetik **Ostatu eta Jatetxeetara** (Bazkideak) trafikoa eramaten da:

- **3.118** bisita beraien **webguneetara**
- **1.005** klik **lokalizazio-mapetan**
- **670** kontaktu **email** bidez
- **103** kontaktu **telefono** bidez
- **96** klik **ostatu**etako **erreserbetara**

**Kanpoko** beste webguneetara **9074** klik egin dira, aurreko urtean baino %19 gehiago:

1. **876** [www.sansebastianturismo.com](http://www.sansebastianturismo.com)
2. **362** [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus)
3. **202** [www.sansebastianturismo.info](http://www.sansebastianturismo.info)
4. **193** [www.txakolirezabal.com](http://www.txakolirezabal.com)
5. **179** [www.txakolitours.com](http://www.txakolitours.com)

**619 dokumentu deskargatu dira:**

1. **282** [manual-para-organizadores-de-congresos.pdf](#)
2. **76** [much\\_more\\_than\\_a\\_beautiful\\_city.pdf](#)
3. **67** [incentivos-san-sebastian.pdf](#)
4. **47** [bus-aeropuerto-san-sebastian-t1pdf.pdf](#)
5. **40** [incentivos\\_2011.pdf](#)

Bideo nagusia, **Donostia / San Sebastián MICE City**, **9195** aldiz ikuskatu da 2016an.






## Prentsari eta Eragileei zuzendutako web-atala

Prentsari eta Eragileei zuzendutako site bat ere badago, haientzako berriazko materiala eskaintzen duena; 11.174 bisita izan ditu atal horrek 2016an, **aurreko urtean baino % 3 gehiago**. 28.655 orri ikusi ditu 8.680 erabiltzailek.

Webgune profesionala izanik, **ordenagailua erabiltzen da gehiago**, eta bertatik egin ziren bisiten %74<sup>a</sup>.



1. <b>Espania</b>	
01-urt-2016-31-abe-2016	7.234 (%64,74)
% de cambios	%-5,33
1. <b>Frantzia</b>	
01-urt-2016-31-abe-2016	758 (%6,78)
% de cambios	%18,44
1. <b>Erresuma Batua</b>	
01-urt-2016-31-abe-2016	504 (%4,51)
% de cambios	%14,55
1. <b>EEBB</b>	
01-urt-2016-31-abe-2016	405 (%3,02)
% de cambios	%25,78
1. <b>Alemania</b>	
01-urt-2016-31-abe-2016	348 (%3,11)
% de cambios	%42,62

**Kanpoko** beste webguneetara **2611** klik egin dira 2034 dokumentu deskargatu dira:

- 1. **1.144** [www.sansebastianturismo.com](http://www.sansebastianturismo.com)
- 2. **115** [www.sansebastiancongress.com](http://www.sansebastiancongress.com)
- 3. **104** [www.nytimes.com](http://www.nytimes.com)
- 4. **81** [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus)
- 5. **64** [www.europeanbestdestinations.com](http://www.europeanbestdestinations.com)

**2.034 dokumentu deskargatu dira:**

- 1. **240** [guia-vacaciones-san-sebastian.pdf](#)
- 2. **226** [san-sebastian-holiday-guide.pdf](#)
- 3. **68** [dossier-de-prensa.pdf](#)
- 4. **64** [logotipo\\_ entidad\\_sansebastianturismo\\_manual\\_estilo.pdf](#)
- 5. **62** [dossier-2015\\_español.pdf](#)




### Jarraitzaile gehiago, eta interakzio handiagoa sare sozialetan

Handitu egin da jarraitzaile-kopurua eta interakzioa Donostia Turismoa & Convention Bureauaren sare sozial guztietan: Instagram, Pinterest, Facebook, Flickr, Twitter eta Youtube.

#### Instagram

foto



#### Instagram Comunidad

##### Evolución seguidores:

Año 2014: 1.520  
Año 2015: 4.868  
Año 2016: 11.477

##### Crecimiento seguidores:

Año 2015: +220,26%  
Año 2016: +135,76%

#### Facebook



#### Facebook Local Comunidad



##### Evolución seguidores:

Año 2014: 6.997  
Año 2015: 8.946  
Año 2016: 13.860

##### Crecimiento seguidores:

Año 2015: +27,85%  
Año 2016: +54,93%



#### Facebook Internacional Comunidad




##### Evolución seguidores:

Año 2014: 1.153  
Año 2015: 1.520  
Año 2016: 2.258

##### Crecimiento seguidores:

Año 2015: +31,83%  
Año 2016: +48,55%

**Pinterest**



**Pinterest Comunidad**


**Evolución visitantes:**

Año 2014: 2.107  
 Año 2015: 3.116  
 Año 2016: 7.358

**Crecimiento seguidores:**

Año 2015: +47,89%  
 Año 2016: +136,14%

**Twitter**



**Twitter Comunidad**

**Evolución seguidores:**

Año 2014: 4.263  
 Año 2015: 6.430  
 Año 2016: 8.483

**Crecimiento seguidores:**

Año 2015: +50,83%  
 Año 2016: +31,93%

“

*Donostia Turismo  
 & Convention  
 Bureauko  
 Sare Sozial  
 Guztietan  
 jarraitzaileek  
 eta hartu-  
 emanak gora  
 egin dute*

”

### 5.1.1.3. PRESS TRIP-AK EDO PRENTSA ETA BLOG-EGILEEN BIDAIAK


Donostia Turismo & Convention Bureau nazioarteko komunikabideekin lankidetzan jarduten du, Donostia mundu mailan **kalitatezko helmuga** gisa posizionatzeko helburuz, eta arreta berezia jartzen du **lehentasunezko merkatuetan** (Frantzia, Alemania, Erresuma Batua, Europako Iparraldeko herrialdeak, Holanda, Belgika, AEB, Kanada, Japonia, Australia...). Bere kolaborazioetan, turismo **iraunkorraren** mezua hedatzearen aldeko apustua egiten du, eta **urtaroen araberakoa ez den turismoa** eta **deskonzentrazioa** sustatzen ditu; press tripetan edo kazetarietzako edo blog egileentzako bidaietan, udako denboralditik kanpo Donostian egiteko planak proposatzen ditu, eta hiriko auzo guztiak eta inguruan egin daitezkeen irteerak erakusten ditu.




**284 kazetariri eman zaio arreta 2016an**

Komunikabideetan interes handia eragin du 2016an **Donostia Kulturaren Europako Hiriburu** izateak. Donostia Turismoa & Convention Bureauak **284 komunikabide** digital eta ez-digitali eman die arreta (hirira **prentsa-bidaian** etorritako **137 kazetarirekin** kolaboratu du, eta **147 kazetariri** eskaini dio arreta online, informazioa, argazkiak, bideoak, kontaktuak etab. bidalita), aurreko urtean baino % 246 gehiagori. Prestigiodun komunikabideekin kolaboratu du, hala nola The New York Times, The Guardian, The Telegraph, CNN, BBC, Forbes, The Evening Standard, The Independent, Le Parisien, Paris Match, Le Figaro, National Geographic, etab.

**ON-OFFLINE KOMUNIKABIDEEI EMANDAKO ARRETA 2016/2015**



**ALDAKUNTZA**




**ARRETA EMANDAKO ON + OFFLINE KOMUNIKABIDEAK**

■ Komunikabideak    ■ Press Trip-ak

**HERRIALDEAK**


■ Komunikabideak  
■ Press Trip-ak




#### 5.1.4. BERTAKOEI ZUZENDUTAKO KOMUNIKAZIOA

Kanpo-promoziorako komunikazioaz gain, **herritarrak informatzeko eta sentsibilizatzeko komunikazio-ekintzak** ere diseinatzen dira. Herritarrak gero eta rol garrantzitsuagoa dauka hirian turismoak duen bilakaeraren inguruko hausnarketan eta, horregatik, handitu egin da toki mailako ekintza eta komunikazio kopurua. Tokiko hartzaileari zuzendutako komunikazio-inpaktu kopuru osoa —**bazkideentzako buletinak, prentsaurrekoak, elkarrizketak eta albisteak**— % 125 gehitu dira aurreko urtetik.

#### INPAKTUAK 2016/2015



#### ALDAKUNTZA



#### INPAKTU MOTAK



Adibidez, Donostia Turismo & Convention Bureauk “#GureDonostia, nire auzoko txokoa” lehiaketa antolatu zuen Instagramen herritarrei zuzenduta, beren hiriaren “enbaxadoreak” izan zitezten, eta euren txokorik gogokoenak erakutsi zitzaten. Helburua zen **deskonzentrazioa** sustatzea, hau da, bisitariak ez daitezela hiriaren Erdialdean eta Alde Zaharrean kontzentratu, baizik eta turismo-fluxuak bana daitezela auzo guztietan, hiri osoko komertzioak eta ostalaritzako establezimenduak dinamizatzeko. 900 argazki baino gehiago aurkeztu ziren lehiaketan, eta hiriaren promozionatzeko erabiltzen dira.

## 5.2. MICE TURISMOA

Donostia Turismo & Convention Bureauak 4 helburu nagusiren inguruan egiten du lan bilera-turismoaren arloan:

### Donostiak bilera-turismorako helmuga gisa duen posizionamendua hobetzea.

Horretarako, azoka, *workshop*, sare eta lantaldeetan hartzen dugu parte, bazkideekin eta beste helmuga batzuekin loturak sortzen ditugu, online presentzia hobetzeko lan egiten dugu, ekintzen berri ematen dugu, *fam trip* edo agenteen bidaiak eta abar.

### Turismoa urtaroen arabera ez izatearen estrategiarekin jarraitzea.

Ilido horretan, urritik maiatzera bitartean ekitaldiak erakartzeari eta babes ekonomikoa eskuratzeari eman diogu lehentasuna.

### Nazioartekotzeko estrategiarekin jarraitzea.

Estrategia hori sustatzeko, lehentasuna eman diogu nazioarteko ekitaldietarako babes ekonomikoari, gabezia logistikoak osatzeko politikak ezarri ditugu, aliatuak bilatu ditugu nazioarteko ekintzetarako, intereseko merkatuen arabera (Erresuma Batua, Frantzia, herrialde eskandinaviarrak, Irlanda, Alemania, AEB, Kanada...) sustapen-ekintzak hautatu ditugu eta abar.

### Sustatzaileen bilaketa bultzatzea

Bisita komertzialak eta tokiko eta nazio mailako aurkezpenak areagotu ditugu Donostia Turismo & Convention Bureauen lana eta zerbitzuak ezagutarazteko, merkatuaren eta antolatzailearen arabera interesekoak ditugun azoka, aurkezpen eta workshopetara joan gara, modu aktiboan babestu ditugu kide diren establezimenduak sustatzeko ekintzak eta abar.

## 5.2.1. TOKIKO EKINTZAK

### 5.2.1.1. AURKEZTUTAKO HAUTAGAITZAK

2016an 16 hautagaitza aurkeztu ditugu eta horietatik 6 irabazi ditugu, 4 baztertu eta 6 aztertze-fasean daude.

Honako hautagaitza hauek irabazi ditugu:

- Autoeskolen Nazioarteko Konbentzioa - 450 ordezkari
- Convention Stef Transport Produits Frais et Surgelés - 100 ordezkari
- Medikuntza Orokorreko eta Familia-medikuntzako Kongresu Nazionala (SEMG) - 3.000 ordezkari
- CEP-PIEko ordezkarien Batzar Nagusia - 80 ordezkari
- Kids&Us urteko Konbentzioa - 1.000 ordezkari
- Kardiologia Pediatrikoko eta Jaiotzatiko Kardiopatiaren Espainiako Elkartearen Kongresu Nazionala - 300 ordezkari

Horiez gain, 14 bisita egin zaizkie tokiko sustatzaileei, hautagaitzak aurkeztera anima daitezen.

“

*Donostia Turismo & Convention Bureauak 4 helburu nagusiren inguruan egiten du: MICE helmuga gisa duen posizionamendua hobetzea, desestazionalizazioa, nazioartekotzea eta promotoreen bilaketa*

”

### 5.2.1.2. ENBAXADORE PROGRAMA

**Enbaxadore** proiektua indartzen ari da. Aitorpen horrek helmugarako batzar-jarduerak erakartzeko lan proaktiboa egiteagatik nabarmendu diren profesionalak saritzen ditu. 5 enbaxadore izendatu ditugu aurten:

Kursaalen 450 ordezkariarik gorako (hitzordu nazionaletan) eta 200 parte-hartzaiterik gorako (nazioarteko hitzorduetan) bilerak, ekitaldiak edo kongresuak antolatzen dituzten profesionaleri aitorpena egiteko 2012an sortutako klub entzutetsu hau osatzen duten 42 profesionalen zerrendan sartu ditugu goian izendatutako enbaxadore berriak.

### 2016KO ENBAXADORE BERRIAK

Arantza Lekuona	Ginekologia Onkologikoko Bilera Nazionala (GINEONCO). 400 pertsona	DONOSTIA OSPITALEA
José Antonio Lozano	IEEE-Congress on Evolutionary Computation CEC. 425 pertsona	EHU
Luis Liz-Marzán	International Conference on Self-Assembly on Confined Spaces (SACS). 200 pertsona	CIC biomaGUNE
José Ramón Aranzábal	International Congress of the International Society for Medical Shockwave Treatments (ISMST) 2017. 250 pertsona	BIDASOA OSPITALEA
Guille Viglione	Club de Creativos lehiaketa. 1.500 pertsona	Club de Creativos

Iturria: Donostia Turismo & Convention Bureau





## 5.2.2. BERTAN ETA NAZIOARTEAN EGINIKO EKINTZAK

### 5.2.2.1. AZOKAK ETA WORKSHOPAK

MICEren arloko 25 azoka eta *workshop*etan hartu dugu parte, bai bertakoetan, bai nazioartekoetan, Donostia ekitaldiak eta bilerak egiteko arloan helmuga estrategiko gisa kokatzeko helburuarekin. Honako merkatu hauetan egin du lan Donostia Turismo & Convention Bureauk:

OTSAILA	18-20	ICCA WORKSHOP (Uppsala, Stockholm)
MARTXOA	17	WORKSHOP MICE (Brusela)
	23-24	SO EVENEMENT (Bordele)
APIRILA	05-09	M&I EUROPE SPRING (Dubai)
	19-21	IMEX (Frankfurt)
MAIATZA	24-25	MICE BISITA KOMERTZIALAK (Madril)
	24-29	MEET BASQUE COUNTRY
	29-31	CONNECTIONS (Málaga)
JUNIO	28/06-02/07	M&I EUROPE SUMMER (Madril)
IRAILA	13	BASQUETOIR - MICE AURKEZPENA (Stockholm)
	15-16	SUSTAPEN-EKINTZA LONDRESKO ERAGILEEKIN (Madril)
	16-18	FRANTZIAKO MERKATUKO ELKARREKIKO JARDUNALDIAK, (Bilbo)
	21-22	MICE BISITA KOMERTZIALAK (Bartzelona)
	25-26	MICE BISITA KOMERTZIALAK (Madril)
	29/09-01/10	THE MEETINGS SPACE (Grezia)
URRIA	9-13	M&I FORUM (Tallin)
	18-20	IMEX AMERICA (Las Vegas)
	21	MICE ERAGILEEN WORKSHOPA (Amsterdam)
	27-29/10	IBERIAN MICE FORUM (Porto)
AZAROA	3	ZUZENEKO JARDUNALDIA MERKATU BRITAINIARRAN (Londres)
	8	WORKSHOP MICE - ECM (Brusela)
	8-9	MICE BISITA KOMERTZIALAK (Iparraldea)
	14-16	MICE BISITA KOMERTZIALAK (Stockholm)
	29-1	IBTM (Bartzelona)

Iturria: Donostia Turismo & Convention Bureau

Nazioarteko 450 kontaktu egin ditugu, lehentasunezko merkatuetan (Erresuma Batua, Frantzia, Alemania, AEB, Belgika, Suedia, Norvegia, etab.)

### 5.2.2.2. FAM TRIP-AK, IKUSKAPEN-BIDAIAK ETA MERKATURATZEARI LOTUTAKO BISITAK

2016an, zazpi *fam trip* antolatzeko lanetan hartu dugu parte. Eragileak lehentasunezko merkatuetan trebatzeko (familiarizatzeko) bidaiak dira:

	HERRIALDEA
OTSAILA	ESPAINIA
	ESKANDINAVIA
MAIATZA	MUNDUKO MERKATU DESBERDINAK
ABUZTUA	JAPONIA
AZAROA	ERRESUMA BATUA ETA ESKANDINAVIA
ABENDUA	ERRESUMA BATUA
	KANADA

Iturria: Donostia Turismo & Convention Bureau

Ikuskapenatarako 9 bidaiak antolatu dira:

OTSAILA	8	MEDIKUNTZA OROKORREKO ETA FAMILIA MEDIKUNTZAKO ESPAINIAKO ELKARTEA (SEMG) – 2017ko maiatzaren 17tik 21ra - 2.000 pertsona
MAIATZA	11	VIDEO AD NEWS EVENT – 2016ko irailak 1-2
EKAINA	10	COMPONENT EVENTS
UZTAILA	12	KIDS & US – 2016ko apirilaren 6tik 8ra konbentzioaren hautagaitza
ABUZTUA	5-7	MEDIKUNTZA OROKORREKO ETA FAMILIA MEDIKUNTZAKO ESPAINIAKO ELKARTEA (SEMG) – 2017ko maiatzaren 17tik 21ra - 2.000 pertsona
IRAILA		ERIZAINZAKO ZUZENDARIEN ESPAINIAKO ELKARTEA
URRIA	21	CDTI - GARAPEN TEKNOLOGIKO INDUSTRIALERAKO ZENTROA
	20	Berreskuratzeko eta Birziklatzeko Espainiako Federazioa (FER)

Iturria: Donostia Turismo & Convention Bureau

Era berean, **34 bisita komertzial** egin dira Madril, Bartzelona, Iparralde, Stockholm eta beste merkatu batzuetan, eta zenbait herrialderen **110 eskaera** ere **erantzun** ditugu, askotarikoak: Espainia, Frantzia, EAE, Erresuma Batua, Alemania, Andorra, Austria...

### 5.2.2.3. EKINTZA BEREZIAK

Azoka, *workshop* eta ikuskapen-bidaiez gain, beste ekintza batzuk ere egin ditugu Donostia kongresu-hiri gisa sustatzeko asmoz:

- Postu bat jarri dugu 13 kongresutan; 18.595 ordezkari bildu dira guztira kongresu horietan.
- Kongresuetako eta hautagaitzetako datu-baseak jasotzen dituen programa bat diseinatu eta abian jarri dugu.
- Zenbait ekintza jarri ditugu abian bazkideekin:
  - M&I – Madril (GSIncoming & InBasque-rekin mahaia partekatuz).
  - Bisita komertzialak Stockholmera Hagoos & GSIncoming-ekin.
  - Lankidetzta Madrilen Gipuzkoako hotelak & Sevillako hotelak sustatzeko ekintzetan - “Ongi Etorri Mi Arma”.
  - Frantziako *workshop*etan izan gara bazkideekin.
  - Spain Convention Bureau (SCB) lantaldekoa da Donostia Turismoa & Convention Bureau eta erakundearen ekintzak zehazteko lanean aritu da.

“  
Azoka, *workshop* eta  
ikuskapen-bidaiez gain,  
beste ekintza bereziak  
ere egin dira Donostia  
kongresu-hiri gisa  
sustatzeko  
”

### 5.2.2.4. ARGITALPEN ESPEZIFIKOAK

Donostia Turismo & Convention Bureau hainbat argitalpen diseinatu du helmuga promozionatzeko, bisitariaren esperientzia errazteko, hiria kongresuak egiteko edo pizgarri-bidaietarako helmuga gisa promozionatzeko, etab.

### Kongresuen antolatzailentzako gidaliburua



## Pizgarrien gida



## Hautagaitzak aurkezteko kita

Donostia Turismo & Convention Bureauk etengabe berritzen du hautagaitza aurkezteko materiala, argazki, informazio, datu eta abar berriak txertatuta.

## 5.2.2.5. PIZGARRI - BIDAIK

## PIZGARRI - BIDAIK 2016

HILABETEA	PERTSONA KOPURUA	ENPRESA ANTOLATZAILEA
URTARRILA	50	SPECIAL EVENTS
	300	AU-DELA ÉVÉNEMENT
MARTXOA	38	FASADA INCOMING S.L.
	2	WARQ EVENTS
	22	STOP
APIRILA	120	PALATINO TOURS
	110	INBASQUE DMC
	15	PASSAPORTA
	70	ORGANIZEO
	85	STOP
	10	INTERNATIONAL MEETINGS
	15	HURTIGRUTEN
MAIATZA	30	NEO TRAVEL
	120	SPAINACULAR
	70	BY YOU BARCELONA - URBAN SHERPAS
	300	SURFAKADEMIN
	80	TAKAMAKA SPORTS NATURE-BIARRITZ
	41	INBASQUE DMC
	15	SOL I MUNTANYA
	50	UNESDI DISTRIBUCIONES
	80	PROFIL ORGANISATION
	500	ASOTEGI
	11	CWT MEETING & EVENTS
		SUD EMOTION
40	VICTOR WITHAK	
EKAINA	50	TAKE OFF REISEN
	70	IAG7 EVENTS & CONGRESSES
	100	DIAMS EVENT
	32	INBASQUE DMC
	18	INBASQUE DMC
	300	TERRES BASQUES
	60	INTERNATIONAL TRADE SHOW
	13	SEOVERIGN TOURISM
	46	AU DÉLA ÉVÉNEMENT

HILABETEA	PERTSONA KOPURUA	ENPRESA ANTOLATZAILEA
UZTAILA		IBEROTEAM
IRAILA	70	E&TB GROUP
	160	ABOUT EVENTS
	170	ATLANTA CONGRESOS
	150	IL GIORNALE
	12	HUMANITAS MEETINGS INCENTIVES
	60	IMB IS SELIVERY SUD OUEST
	30	ORGANIK
	50	SPAINACULAR
	20	AIM GROUP INTERNATIONAL-MADRID OFFICE
	20	STOP
URRIA	35	THE TRAVEL CLUB
	35	3-EVENTS
		AMBIANCE INCENTIVES
	70	CITITRAVEL
	50	INBASQUE DMC
	110	LE PARADIS C'EST ICI (BORDEAUX)
	80	GS INCOMING
	50	CONNACTION
	15	ALO SPAIN DMC
	30	OCÉANS DU MONDE
	20	BMW CON LA AGENCIA FULL TEAM NETWORKS
AZAROA	20	CONVENTIA
	15	IMAGINARE
ABENDUA	1.200	NEOKONCEPT

Iturria: Donostia Turismo & Convention Bureau

### 5.3. AISIALDIKO TURISMOA

Donostia Turismo & Convention Bureauak aisialdiko turismoa kudeatzeari lotuta, honako **helburu nagusi** hauek ditu:

#### 1. Nazioartean hiriaren markak duen posizionamendua indartzea.

Nazioartekotzeko estrategia zehaztu dugu lehentasunezko merkatuka:

- Nazioarteko 1. merkatutarako estrategia: Frantzia.
- Europako herrialdeetarako estrategia: Erresuma Batua, Alemania, Belgika, Herbehereak, herrialde eskandinaviarrak.
